



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

## **Prensa-oharra**

Bizkaiko Batzar Nagusien Gizarte Ekintza Batzordea

# **Inoren laguntza behar daben pertsonen eta ezintasunduen buruzko Lantaldea Aldundiaren “ibilbide-orria” da gizarte-politikan aurrera egiteko, Ardanza andrearen esanetan**

- **Gizarte Ekintzako Diputatu, Pilar Ardanza andrea, Batzar Nagusietan izan da, joandako agintaldiaren amaieran Batzar Nagusiek egindako lan horren inguruan Foru Aldundiak “martxan jarritako neurriak” azaltzeko, Socialistas Vascos Taldearen eskariari erantzunez.**

Bilbon, 2012ko azaroaren 7an.

Gizarte Ekintzako Foru Diputatu, Pilar Ardanza andrea, Batzar Nagusietan izan da gaur goizean, azalpenak emateko Inoren laguntza behar daben pertsonen eta ezintasunduen egoera eta sorosten-beharrizanak aztertzeko Lantaldearen ondorioak eta iradokizunak martxan jarteko Aldundiak egindakoari buruz. Dokumentu hori aurreko agintaldian batzarkideen gahiengoz onartu zan. Ia ordu bete eta erdi iraun dauen batzorderatzean, Gizarte Ekintza Saileko arduradunak atalez atal birpasatu dau Bizkaiko Legebatzarrak onartutako dokumentua, eta txostenean agertzen diran berrehun iradokizun inguru aintzat hartuta bere Sailaren jarduera-ildo nagusiak azaldu ditu. Ardanza andreak esan dau Aldundiak berea balitz lez hartu dauela dokumentu hori. “Mendekotasunaren arloan aurrera egiteko” Aldundiak “ibilbide orritzat” dauela dokumentu hori esan dau.

Socialistas Vascos Taldearen eskariz izan da batzorderatzea, jakin gura izan dabe-eta 2008. urtean abiarazo eta hiru urtez 52 bileratan osatutako “lan garrantzitsu” horren betetze-maila zein dan. Dokumentuan hainbat iradokizun biltzen dira euskal erakunde ezbardinei zuzendutakoak (Eusko Jaurlaritzari, aldundiei eta udalei) mendekotasun egoeran dagozan pertsonen eskaintako sorospidetza hobatzeko. Ardanza andrearen esanetan, dokumentu hori “gida moduan erabilten dogu”, baina gogoratu dau egoera ez dala 2008koaren modukoa. Lantaldearen hausnarketea ekonomia ondoen egoanean hasi zan, baina gaur egun “krisialdi larria bizi dogu”. Hata guzti be, Diputatu andreak esan dau Aldundiak plan horretan “aurrera egiteko borondatea” daukala, nahiz eta autortu erritmoak ez dirala bardinak izango. “Astiroago joango gara, garai honetako egoerara egokitu beharra daukagu-ta”.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

Ardanzak ahaleginak egin ditu batzordekideak konbentziduten Aldundiak interesa daukala “ibildide orri” horren ildotik joateko; hori eta gero, Ardanza Diputatu andreak zerrendatu egin ditu Ponentziaren gomendioakaz loturiko hainbat jarduera. Lehenengo eta behin, azpimarratu egin dau adostasun zabala jadetsi dala “emon gura ditugun zerbitzuez eta zerbitzuok jaso ahal dituen pertsonen”. Txalotu egin dau batetik, Aldundiari laguntza eskatzen deusien pertsonen aurretiaz jakitea sei hilebete baino lehen izango dabela ebatsita administrazio espedientea eta, bestetik, balorazioak “in situ”, etxeetan bertan, egitea.

Ponentziaren gomendioakaz bat datozen jardueren artean Ardanza Diputatuak azpimarratu egin dau be udalakazko koordinazioa hobetu egin dala eskariak bideratzerakoan, Bizkaitik zerbitzuari esker hobetu be. Zerbitzu hori Bizkaiko 112 udaletatik 101 udaletan dago. Eguneko zentroen malgutasunean ahaleginak egin dira, nahiz eta Diputatu andreak onartu dauen egokitutako garraioagaz arazoak dagozala, gaur-gaurkoz ordutegi nahiko zurruna daukalako. Ardanzak iragarri dau eze hurrengo asteetan zabalduko dala Ondarruko egoitza, eta hori adibidetzat jo dau “askotariko zentro” moduan. Era berean, aitatu egin ditu, esate baterako, “Zainduz” egitaraua, daborduko pertsona zaintzaileen beharrezan %90a beteten dauena (portzentaje hori %50eko zan 2008an), edo Gizatek egitarauaren bitartez (etxebizitzak egokitzeko) emoten diran laguntzak.

Adinekoentzako egitarauaren barruan, besteak beste, hurrengo lorpenak aitatu ditu Diputatu andreak: aisialdi eta astialdi egitarauetan inbertitu diran 1,3 milioiak, Adineko egitarauak pertsona desgaituei zabaldu izana, zahartze aktiboaren arloan Aldundiak egindako plan estrategikoa, emakume desgaituak bazterkeria bikotxa izan ez dagien egindako ahaleginak, Bizkaiko alkarte eta erakundeakaz lortutako hartu-emon ona, zerbitzuak deszentralizatzeko apustuak, “bizitza independenteko” egitarauak, Bizkaian egoitzaratuta dagozan adinekoenganako soroslaritzaren hobekuntza eta Bizkaiko gizarte zerbitzuen “bikaintasuna”, hori holan dal kanpoko erakundeek be autortzen dabe-ta.

Horren ostean, Ardanzak gainbegiratu egin dau zer ekarriko dauen etorkizunak, eta gakotzat agertu dau finantziarazino eredu eta zerbitzuak eta prestazinoak aldi berean alkargarri egitea. Horretan egoala, Eusko Jaurlaritzak egin dauen Dekretuaren zirriborroa aitatu dau, eta adierazo dau ea adostasun handia lortu eta “epe laburrean araudia izan geinken herritarrek Euskadi osoan zerbitzuen eta prestazinoen arloan dabezan eskubideak homogeneotzeko”; dana dala, adierazo dau bera “uniformitatea” baino “kohesinoa” bilatzearen aldekoagoa dala.

Hain zuzen be, bilera berean eztabaidatu da Bildu Taldeak aurkeztu dauen beste Arauz Besteko Proposamen bat, zeinen bitartez Aldundiari eskatu egiten jakon bateragarritasun eta bateraezintasunari buruzko araubidean aldaketa batzuk egitea, zertarako eta pertsona berak aldi berean prestazino eta zerbitzua jaso ahal izan dagian. Proposamen hori baina, baztertu egin da Euzko Abertzaleak Taldearen eta Bizkaiko Talde Popularraren aurkako botoakaz, Taldeok uste eben-eta gai hori Eusko Jaurlaritzak arautu behar dauela. Jon Larrea batzarkide jeltzaleak esan dau “akordioa dagoala Eusko Jaurlaritzaren, Aldundien eta EUDELen artean, eta akordio hori



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

finantziazioaren pentzu dagoala”. Socialistas Vascos Taldeak aldeko botoa emon deutso Bilduren Proposamenari, uste dabelako aurrekontuak aurkeztu aurreko “une hau egokia dala”.

Diputatuaren hitzaldia eta gero, Batzarkide-Taldeak prest agertu dira jarduerak sakontasunez aztertzeko eta Ponentziaren gomendioak bete egiten dirala zaintzeko. Iruñe Soto Bilduko Taldeburuak baina, gogotara ekarri dau bere Taldeak ez ebalatu haren idazkeran parte hartu eta dokumentuak “epe luzean utziko” dauen gizarte eredu horregaz “bat ez datozela, pribatizazio prozesu ezkutua baitakar”.

### **Botikak egoitzetan**

Batzorde bilera horretan be Diputatuak erantzun egin deutso Bildu Taldeak egindako ahozko erantzun-eske bati, zeinen bitartez informazioa eskatzen zan Bizkaian botikak banatzeko erabilten dan ereduaz. Talde horrek jakin gura eban ea Bizkaiko egoitzetarako sendagaien dispensazioa zergaitik “zentralizatzen den farmazia konkretu batzuetan”. Ardanza Diputatu andreak ukatu egin dau GUFEn zentroetan hori holan izatea, generatuz botikak dispensatzeko txanden eredu dagoala eta hori “bete egiten dala”.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Foru Plana izan dau hizpide Bildu Taldeak aurkeztutako hurrengo ekimenak. Bilduk gura eban “Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak Plan hori onartu baino lehen, epe bat zabaldu dezala Bizkaiko Batzar Nagusietako batzarkide-taldeek Planari ekarpenak egiteko” (...) “jakinda Plan horrek Bizkaian hurrengo urteetan (2012- 2015) bultzatuko diren berdintasun-politiken norabidea finkatuko duela”. Ekimen hori kendu egin da, Plan hori daborduko onartu danez, “berandu” heldu dalako. Edozelan be, Taldeak bildu egin dira batzordea eta gero, etorkizunean plan horretan parte hartzeko ereaz hausnartzeko.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

## **Nota de prensa**

Comisión de Acción Social de las Juntas Generales de Bizkaia

### **La ponencia sobre personas dependientes y discapacitadas es la “hoja de ruta” de la Diputación para avanzar en las políticas sociales, según Ardanza**

- La Diputada de Acción Social, Pilar Ardanza ha comparecido, a petición del Grupo Socialista, para explicar las “medidas puestas en marcha” por la Diputación en relación a este trabajo aprobado en las Juntas Generales a finales de la legislatura pasada.

Bilbao, a 7 de noviembre de 2012.

La Diputada foral de Acción Social, Pilar Ardanza, ha acudido esta mañana a las Juntas Generales de Bizkaia para informar de la aplicación de las recomendaciones que la cámara vizcaína propuso en la Ponencia sobre Situación y Necesidades de las Personas Dependientes y Discapacitadas, documento que fue aprobado en la legislatura pasada por una amplia mayoría parlamentaria. En la comparecencia de casi hora y media de duración, la responsable foral ha repasado, capítulo a capítulo, el documento aprobado en el Parlamento de Bizkaia y ha trazado las principales líneas de actuación que su departamento ha llevado a cabo en relación a las más de doscientas recomendaciones incluidas en el informe. Ardanza ha manifestado que la Diputación ha asumido como propio el documento. Es la “hoja de ruta” que la Diputación está utilizando para “avanzar en materia de dependencia”.

La comparecencia de la diputada se ha producido a petición del Grupo Socialistas Vascos, que quería conocer el grado de cumplimiento de una labor “importante”, iniciada en el año 2008 y desarrollada tras más de tres años de trabajo y 52 sesiones, en donde se incluyen más de doscientas sugerencias o recomendaciones a los distintos niveles de la Administración vasca (Gobiernos vasco, diputaciones y ayuntamientos) para mejorar la atención de las personas que se encuentran en situación de dependencia. Ardanza ha señalado que este documento “nos sirve de guía”, pero ha recordado que la situación ahora no es la misma que la del 2008. Se inició esta reflexión en pleno periodo “expansivo” de la economía y ahora “vivimos en una crisis importante”. Aún así, la diputada ha señalado que la voluntad de la Diputación es “seguir adelante” con el plan aunque ha señalado que los ritmos no serán los mismos. “Serán más lentos, ya que hay que adaptarse a la realidad de cada momento”.

Tras intentar convencer a la comisión del interés de la Diputación por seguir caminando con esta “hoja de ruta”, Ardanza ha destacado decenas de actuaciones que guardan relación con las sugerencias que se extraían de la Ponencia. Ha destacado en primer lugar el amplio consenso obtenido sobre los servicios que “queremos dar y qué personas tienen derecho a recibir esos servicios”. Se ha felicitado de que las personas que solicitan ayuda a la Diputación saben que



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

tienen un plazo máximo de seis meses para que la administración resuelva el expediente o que se hagan valoraciones “in situ” en los mismos domicilios.

Entre las actuaciones llevadas a cabo por la Diputación que coinciden con el cumplimiento de la Ponencia, Ardanza ha destacado también la mejora que se está produciendo en la coordinación de las solicitudes con los ayuntamientos gracias al servicio Bizkaitik, presente en 101 municipios de Bizkaia, de un total de 112 ayuntamientos. Se ha trabajado en el campo de la flexibilidad horaria de los Centros de Día, si bien la diputada ha reconocido que existe un problema con el transporte adaptado sujeto en la actualidad a horarios bastante rígidos. Ardanza ha anunciado además que en las próximas semanas la Diputación abrirá el centro de Ondarroa y lo ha puesto como ejemplo de servicio “polivalente”. Ha citado programas como el de Zainduz que cubre ya el 90% de las necesidades formativas de las personas cuidadoras (porcentaje que era del 50% en 2008) o las ayudas que se ofrecen a través del programa Gizatek para la adaptación de domicilios.

En el programa de las personas mayores, la diputada ha citado como logro los 1,3 millones de euros invertidos en programas de ocio y tiempo libre, la apertura de los programas Adineko a personas discapacitadas, el plan estratégico elaborado por la Diputación en temas de envejecimiento activo, los trabajos para eliminar la doble discriminación de las mujeres discapacitadas, el amplio nivel de relación con las asociaciones y entidades vizcaínas, así como las apuestas por la descentralización de los servicios, los programas de "vida independiente", la mejora en la atención de las personas mayores en los centros residenciales de Bizkaia, y la "sobresaliente" calidad de los servicios sociales vizcaínos, reconocido por entidades externas, entre otras actuaciones.

Ardanza se ha referido también a lo que nos deparará el futuro y ha puesto el foco en resolver el modelo de financiación y en la próxima compatibilidad de poder optar al mismo tiempo a servicios y prestaciones. En este asunto, se ha referido al borrador del decreto elaborado por el Gobierno Vasco. Ha deseado que, con un amplio nivel de consenso, “podamos a corto plazo tener una regulación para homogeneizar los derechos de los ciudadanos en materia de servicios y prestaciones en toda Euskadi”, aunque ha advertido que es partidaria de buscar la “cohesión” y no tanto la “uniformidad”.

Precisamente, una proposición no de norma de Bildu, debatida en la misma comisión, y que buscaba que la Diputación ampliara el régimen de compatibilidades para que una persona pudiera optar al mismo tiempo a recibir una prestación y un servicio, ha sido rechazada con los votos contrarios de los grupos Nacionalistas Vascos y Populares Vizcaínos, al entender que esta materia va a ser regulada en breve por el Gobierno Vasco. “Hay un acuerdo con el Gobierno Vasco, las diputaciones y EUDEL a falta de concretar la financiación”, ha dicho el apoderado nacionalista Jon Larrea. El Grupo Socialista ha apoyado la iniciativa de Bildu por entender que era el “momento adecuado”, antes de la presentación de los presupuestos.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**B I Z K A I A**

Tras el relato de la diputada, los grupos junteros han mostrado su disposición a estudiar detenidamente las actuaciones y a seguir vigilando el cumplimiento de las recomendaciones de la ponencia, si bien la apoderada de Bildu, Amaya Agirresarobe, ha recordado que su grupo no participó en su redacción y que el documento deja, "a largo plazo", un modelo social que "no compartimos, ya que supone un proceso encubierto de privatización".

### **Medicinas para residencias**

En la misma sesión, la diputada ha respondido a una "pregunta oral" en la que el Grupo Bildu solicitaba información sobre el modelo de distribución farmacéutico que se utiliza en Bizkaia. Este grupo quería saber el motivo por el que la dispensación de medicinas en las residencias de Bizkaia se estaba "centralizando en una serie de farmacias concretas". Ardanza ha negado que en los centros del IFAS se esté produciendo esta circunstancia, ya que existe un modelo de turnos para la dispensación de medicinas que se "está cumpliendo".

### **Plan de Igualdad**

El IV Plan Foral de Igualdad de Hombres y Mujeres era el destino de otra iniciativa de la coalición abertzale. Bildu quería que la Diputación se comprometiera a escuchar las "aportaciones" de los grupos junteros antes de que el Consejo de Gobierno aprobara este documento, el cual establece las líneas de actuación de las políticas de igualdad que se desarrollan en Bizkaia durante los próximos años. La iniciativa ha sido retirada, ya que su debate llegaba tarde al haber sido aprobado ya este plan de igualdad interno por parte de la Diputación. Los grupos se han citado posteriormente, tras finalizar la comisión, para buscar una fórmula de participación de los grupos junteros en el seguimiento del mismo y en la elaboración de futuros planes.